



ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL AGINPIDEKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2022/10/24an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022/12/23an

ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL AGINPIDEKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

1.Artikulua

Eranskinetako tarifetan adierazten diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira Ordenantza honetako arauen arabera, haiek parte direlarik.

2.Artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

3.Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak, zerbitzu eta jardueren onura izan dezaketenek ordainduko dituzte.

4.Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoen tarifak, Eranskinetan datozenak dira.

5.Artikulua

Kopuru eskagarriak, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzagatik ordainduko dira eta dagozkien epigrafeetan aipatzen diren zenbatekoetan ezin zatikatuko dira.

6.Artikulua

Ordenantza honetan aipatzen diren zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzerako, Udal Administrazioari eskatu beharko zaio beren eskaintza edo burutzea. Zerbitzu edo jarduera horiek emantzat joko dira, kasua balitz, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta behin luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki zerbitzua ez eskaintzea edo jarduera ez burutzea ekarriko du.

7.Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen ordaindu beharra zerbitzuaren eskaintza edo jardueraren burutzea hasten denetik izango da.

Hala ere, emandako eta luzatutako zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzeagatiko kasuan, ordainketaren beharra dagozkien tarifetan jartzen diren epealdi natural bakoitzaren lehenengo egunean hasiko da.

8.Artikulua

Prezio publikoaren ordainketa kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzen arabera egingo da.

9.Artikulua

Prezio publikoaren ordainketara behartuta dagoenari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik, jarduera burutzen ez deneko kasuan, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

10.Artikulua

Prezio publiko hauengatik zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du aldatzea edo derogatzea erabakitzen den arte.

ERANSKINA

Haur dinamizazio zerbitzua (A, B,C epigrafeak)

A epigrafea: LUDOTEKA (Angiozar, Osintxu eta Azokako ludotekak)

Prezio hauek soilik ludoteka modu presentzialean ematen bada aplikatuko dira, ludoteka kalean eskaintzen bada ez.

- ▶ Azokako ludotekagatik ez da ezer ordaindu beharko
- ▶ Angiozar eta Osintxuko ludotekak (egunero joateko izena eman daiteke).

KUOTA ARRUNTA

1. seme-alaba: 62 €
2. seme-alaba: 56,80 €
3. seme-alaba: dohainik

TARIFA SOZIALA: dohainik

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

- Elkarbizitza-unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.
- Elkarbizitza-unitateak diru-kopuru hau baino gutxiago jaso behar du urtean.

BAREMOA	Urteko diru-sarrera
Pertsona bateko bizikidetza-unitatea	22.029,00 €
Bi pertsonako bizikidetza-unitatea	29.805,23 €
Hiru pertsonako bizikidetza-unitatea	35.247,67 €
Lau pertsona edo gehiagoko bizikidetza-unitatea	40.689,91 €

TARIFA SOZIALA ESKATZEKO PROZEDURA

Izena emateko epe barruan, tarifa soziala aplikatzeko eskatu beharko da B@Z bulegoan edo Agorrosinen.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena).
2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitortpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).
3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzeke Lanbidek emandako agiria.
4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria.

B epigrafea: UDALEKU IREKIAK

UDALEKU IREKIAK	3 ASTEKO IRAUPENA	4 ASTEKO IRAUPENA	TARIFA SOZIALA 3 ASTE	TARIFA SOZIALA 4 ASTE
Lehenengo eta bigarren seme-alaba	83€ bakoitza	105€ bakoitza	40€	50€
Hirugarren umea eta ondorengoak	dohainik	dohainik	dohainik	dohainik

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

- Elkarbizitza-unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.
- Elkarbizitza-unitateak diru-kopuru hau baino gutxiago jaso behar du urtean.

BAREMOA	Urteko diru-sarrera
Pertsona bateko bizikidetza-unitatea	22.029,00 €
Bi pertsonako bizikidetza-unitatea	29.805,23 €
Hiru pertsonako bizikidetza-unitatea	35.247,67 €
Lau pertsona edo gehiagoko bizikidetza-unitatea	40.689,91 €

TARIFA SOZIALA ESKATZEKO PROZEDURA

Izena emateko epe barruan, tarifa soziala aplikatzeko eskatu beharko da B@Z bulegoan edo Agorrosinen.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena).
2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitortpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).
3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako "lan-bizitza" agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzeke Lanbidek emandako agiria.
4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria.

C epigrafea: AZOKAN OSPAKIZUNAK EGITEKO

Eskatzaile bakoitzak 52€-ko fidantza ordainduko du.

Materiala ondo itzultzen badu, fidantza itzuliko zaio.

D epigrafea: Laboratorium Museoa

Prezio publikoa izango duten zerbitzuak

1. Museoko sarrera.
2. Museoaren hezkuntza-eskaintza.
3. Museoan bertan zein egoitzaatik kanpo eskainitako bisita gidatuak
4. Museoko dendan saltzen ditugun produktuak

Museoko Sarrera. Ordaintzera behartuak eta modalitateak. Jarraian aipatzen diren sarbide motak ezartzen dira:

Museoko sarrera, A tarifa, Orokorra: sarrera indibiduala. Egun baterako balioko du, eta erakusketa iraunkorra bisitatzeko aukera emateaz gain, bisita egunean jendearentzat irekita dauden aldi baterako erakusketak bisitatzeko aukera ere emango du.

Museoko sarrera, B tarifa, Taldeak: taldeentzako sarrera. Halakotzat hartuko dira 8 pertsonak edo gehiagok egindako bisitak.

Museoko sarrera, C tarifa, Murriztua: prezio murriztuko sarrera. Egiaztatari baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala badagokio, tarifa orokorreko prezioen gaineko %50eko murrizketa aplikatuko da kasu hauetan:

- a) Familia ugarietako kideak, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2. artikulua, eta lege hori garatzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.
- b) Edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleak, derrigorrezko hezkuntza izan edo ez.
- c) Helduak, 65 urtetik gorakoak.
- d) Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa edo Laguntzak, eta Kotizatu Gabekoen Pentsioa jasotzen duten pertsonak.

Museoko doako sarrera:

- a) Bisitari guztientzat maiatzaren 18an (Museoen Nazioarteko Eguna).
- b) Hurrengo kolektiboen barruan dauden bisitariantzat, egiaztatari baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala dagokionean.
 1. 14 urtetik beherakoak; pertsona heldu batekin joango dira, sekula ere ez bakarrik.
 2. Gazte txartela, gazteen txartela edo Europako baliokidea dutenak, europar Gazte Txartel Elkartearen esparruan (EYCA -European Youth Card Association), ICOM elkarteak (Museoen Nazioarteko Kontseilua).
 3. Desgaitasunen bat duten pertsonak, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubide eta Gizarteratze Lege Orokorrean, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Laguntzailea ere museora doan sartu ahal izango da, bere laguntza beharrezkoa bada bisita egiteko.
 4. Langabezia egoera legalean dauden pertsonak.
 5. Irakasleak, irakasle txartela aurkeztuz gero.

Museoaren hezkuntza-eskaintza

Taldeakako jarduerak izango dira. Talde bakoitza gehienez ere 35 lagunek osatuko dute. Jarduera hauek eta tarifa motak honakoak izango dira:

- Eskolendako bisita gidatuak, oinarrizko eskaintzatik at. Tarifa bakarra ezarriko da.
- Laborategiko jarduerarik ez duten jarduera didaktikoak. Talde txikiei erraztasunak ematearren, 2 tarifa ezartzen ditugu:
 - 20 ikasle arteko taldeen tarifa.
 - 20-tik gorako taldeen tarifa.

- Laborategiko jarduera duten jarduera didaktikoak. Talde txikiei erraztasunak ematearren, 2 tarifa ezartzen ditugu:
 1. 20 ikasle arteko taldeen tarifa.
 2. 20-tik gorako taldeen tarifa.

35 lagunetik gorako eskaerak ematen direnean, zerbitzua ematea posible baldin bada, taldeak banatu egingo dira. Sortutako talde bakoitzari ikasle kopuruaren araberrako tarifa aplikatuko zaio.

Tarifa horien barruan sartuta daude jardueraren garapenerako erakusketa iraunkorrera zein beste gune batzuetara programatuta egon daitezkeen bisita gidatuak eta sarrerak, monitoreak eta jarduerako materialak.

Museoan bertan zein egoitzaatik kanpo eskainitako bisita gidatuak

Bisita gidatuak. Ordaintzera behartuak eta modalitateak.

Bisita gidatuen oinarritzko eskaintza:

Bisita ez-hitzartuak: Urteko egun eta ordu jakin batzuetan Udalak bisita gidatuak eskaintzen ditu, *Laboratorium* museoko harreran izaten den gidarekin. Bisita gidatuen oinarritzko eskaintza hau finkoa da eta harrera gunean bertan, kanpoko informazio panelean eta web orrietan iragartzen da urte osorako (egunak, orduak, hizkuntzak, gaiak).

Honako tarifa mota hauek ezartzen dira bisita gidatuen oinarritzko eskaintzarako:

- Bisita gidatua, Tarifa arrunta. Bisita gidatu baterako balioko du.
- Bisita gidatua, Taldeak. Taldeak: taldeentzako sarrera. Halakotzat hartuko dira 8 pertsonak edo gehiagok egindako bisitak.
- Bisita gidatua, Tarifa murriztua: Egiatagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala badagokio, tarifa orokorreko prezioen gaineko %50eko murrizketa aplikatuko da kasu hauetan:
 - a) Familia ugarietako kideak, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2. artikulua, eta lege hori garatzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.
 - b) Edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleak, derrigorrezko hezkuntza izan edo ez.
 - c) Helduak, 65 urtetik gorakoak.
 - d) Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa edo Laguntzak, eta Kotizatu Gabekoen Pentsioa jasotzen duten pertsonak

Doako bisita gidatua:

- a) Bisitari guztientzat maiatzaren 18an (Museoen Nazioarteko Eguna).
- b) Hurrengo kolektiboen barruan dauden bisitariarentzat, egiatagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala dagokionean.
 - 14 urtetik beherakoak; pertsona heldu batekin joango dira, sekula ere ez bakarrik.
 - Gazte txartela, gazteen txartela edo Europako baliokidea dutenak, europar Gazte Txartel Elkartearen esparruan (EYCA -European Youth Card Association),
 - ICOM elkarteko kideak (Museoen Nazioarteko Kontseilua)

- Desgaitasunen bat duten pertsonak, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubide eta Gizarteratze Lege Orokorrean, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Laguntzailea ere museora doan sartu ahal izango da, bere laguntza beharrezkoa bada bisita egiteko.
- Langabezia egoera legalean dauden pertsonak.
- Irakasleak, irakasle txartela aurkeztuz gero.

Bisita gidatu hitzartuak: Udalak eskaintzen duen oinarritzko egutegitik kanpo bisita gidatuak hitzartu ahal izango dira, beti ere gutxienez 4 egun lehenago eskatzen badira eta udalak horiek eskaintzeko aukera izaten badu. Kasu honetan, tarifa berezia izango du zerbitzuak:

- a) Bisita gidatua, Talde txikiaren tarifa: 5-10 lagun arteko taldea
- b) Bisita gidatua, Talde ertainaren tarifa: 11-20 lagun arteko taldea
- c) Bisita gidatua, Talde handiaren tarifa: 55 lagun arteko taldea

Bisita konbinatua:

Museoko sarrera eta Bisita gidatua (Monumentala, lorategiak, museoa...)

Zerbitzu biak kontratatuz gero prezio totalak hobaria izango du. Honako tarifa mota hauek ezartzen dira bisita konbinatuaren kasuan:

- Konbinatua, Tarifa arrunta: Bisita gidatu bat + Museoko sarrera
- Konbinatua, Tarifa murriztua: Bisita gidatu bat + Museoko sarrera. Egiatagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala badagokio, tarifa orokorreko prezioen gaineko %50eko murrizketa aplikatuko da kasu hauetan:
 - a) Familia ugarietako kideak, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2. artikulua, eta lege hori garatzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.
 - b) Edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleak, derrigorrezko hezkuntza izan edo ez.
 - c) Helduak, 65 urtetik gorakoak.
 - d) Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa edo Laguntzak, eta Kotizatu Gabekoen Pentsioa jasotzen duten pertsonak.
- Konbinatua, Doako tarifa:
 - a) Bisitari guztientzat maiatzaren 18an (Museoen Nazioarteko Eguna).
 - b) Hurrengo kolektiboen barruan dauden bisitarientzat, egiatagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala dagokionean:
 - 14 urtetik beherakoak; pertsona heldu batekin joango dira, sekula ere ez bakarrik.
 - Gazte txartela, gazteen txartela edo Europako baliokidea dutenak, europar Gazte Txartel Elkartearen esparruan (EYCA -European Youth Card Association), ICOM elkarteko kideak (Museoen Nazioarteko Kontseilua)
 - Desgaitasunen bat duten pertsonak, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubide eta Gizarteratze Lege Orokorrean, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Laguntzailea ere museora doan sartu ahal izango da, bere laguntza beharrezkoa bada bisita egiteko.
 - Langabezia egoera legalean dauden pertsonak.
 - Irakasleak, irakasle txartela aurkeztuz gero.

- Konbinatua: Bisita gidatu hitzartuak: Udalak eskaintzen duen oinarritzko egutegitik kanpo bisita gidatuak hitzartu ahal izango dira, beti ere gutxienez 4 egun lehenago eskatzen badira eta udalak horiek eskaintzeko aukera izaten badu. Kasu honetan, tarifa berezia izango du zerbitzuak:
 - a) Bisita gidatua, Talde txikiaren tarifa: 5-10 lagun arteko taldea
 - b) Bisita gidatua, Talde ertainaren tarifa: 11-20 lagun arteko taldea
 - c) Bisita gidatua, Talde handiaren tarifa: 55 lagun arteko taldea

Museoko sarrera eta Bisita gidatua (Olaso Dorrea)

Konbinatua, Tarifa arrunta: Bisita gidatua olaso Dorrera + Museoko sarrera

Konbinatua, Tarifa murriztua: Bisita gidatu bat + Museoko sarrera. Egiaztagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala badagokio, tarifa orokorreko prezioen gaineko %50eko murrizketa aplikatuko da kasu hauetan:

- a) Familia ugarietako kideak, Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 2. artikulua, eta lege hori garatzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.
- b) Edozein irakaskuntza ziklotan ikasten ari diren ikasleak, derrigorrezko hezkuntza izan edo ez.
- c) Helduak, 65 urtetik gorakoak.
- d) Diru Sarrerak Bermatzeko Prestazioa edo Laguntzak, eta Kotizatu Gabekoen Pentsioa jasotzen duten pertsonak.

Konbinatua, Doako tarifa:

- a) Bisitari guztientzat maiatzaren 18an (Museoen Nazioarteko Eguna).
- b) Hurrengo kolektiboen barruan dauden bisitariarentzat, egiaztagiri baliagarria eta eguneratua aurkeztu ondoren, hala dagokionean:
 - 14 urtetik beherakoak; pertsona heldu batekin joango dira, sekula ere ez bakarrik.
 - Gazte txartela, gazteen txartela edo Europako baliokidea dutenak, europar Gazte Txartel Elkartearen esparruan (EYCA -European Youth Card Association), ICOM elkarteko kideak (Museoen Nazioarteko Kontseilua)
 - Desgaitasunen bat duten pertsonak, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubide eta Gizarteratze Lege Orokorrean, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Laguntzailea ere museora doan sartu ahal izango da, bere laguntza beharrezkoa bada bisita egiteko.
 - Langabezia egoera legalean dauden pertsonak.
 - Irakasleak, irakasle txartela aurkeztuz gero.

Museoko dendan saltzen ditugun produktuak

Museoko dendan, museoaren gaiei lotutako produktuak saltzen ditugu. Salduko ditugun produktuak eta horien prezioak dokumentuaren amaieran dagoen taulan zehazten ditugu.

Elkartruke, opari edota bestelako behar edo promozioetarako, Udalak argitaratutako liburu bakoitzeko 200 ale izango ditu museoak, dohainik bidaltzeko.

Administrazioa eta kobrantza.

1. Hemen ezarritako prezio publikoen kobrantza, harrerako ardura duen museoko langileei dagozkie zuzenean. Hala ere, eta kontratazio administratiboen arabera asteburuetan eta opor garaian funtzio hori betetzeko baimendu daitezkeen kanpoko langileek ere egin ahal izango dute.
2. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak, museoko sarrera eta bisita diruz ordainduko dute museoko harrera gunean.

3. Harreran egindako kobrantza udal kontuhartzailtzak ezarritako irizpideen arabera kudeatuko da.
4. Zerbitzua galdegiten den bezain azkar eskatuko da xedapen honek ezarritako prezio publikoak ordaintzea.
5. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonari egotzi ezin zaion arrazoiarengatik ezin denean zerbitzua eman, kobratutako prezio publikoa itzuliko da indarrean dagoen legediaren arabera.

Ordaindu beharreko zenbatekoak

MODALITATEA	PREZIOA
MUSEOKO SARRERA	
01. Museoko sarrera, A tarifa, Orokorra: sarrera indibiduala	4,15 €
02. Museoko sarrera, B tarifa, Taldeak (bakoitzeko)	2,60 €
03. Museoko sarrera ,C tarifa, Murriztua	2,10 €
04. Museoko doako sarrera	0 €
BISITA GIDATUAK, OINARRIZKO ESKAINTZA	
05. Bisita gidatua, Tarifa arrunta	4,15 €
06. Bisita gidatua, Taldeak (bakoitzeko)	2,60 €
07. Bisita gidatua, Tarifa murriztua	2,10 €
08. Doako bisita gidatua	0 €
09. Konbinatua, Tarifa hitzartua	
09.1 Bisita gidatua, Talde txikiaren tarifa	46,80 €
09. 2 Bisita gidatua, Talde ertainaren tarifa	93,60 €
09.3 Bisita gidatua, Talde handiaren tarifa	130 €
BISITA KONBINATUA OINARRIZKOA (Museoko Sarrera + Bisita Gidatua)	
09. Konbinatua, Tarifa arrunta	5,20 €
10. Konbinatua, Tarifa murriztua	2,60 €
11. Konbinatua, Tarifa taldeak	3,10 €
12. Konbinatua. Doako bisita gidatua	0 €
13. Konbinatua, Tarifa hitzartua	
13.1 Bisita gidatua, Talde txikiaren tarifa	52 €
13. 2 Bisita gidatua, Talde ertainaren tarifa	98,80 €
13.3 Bisita gidatua, Talde handiaren tarifa	135,20 €
BISITA KONBINATUA OINARRIZKOA (Museoko Sarrera + Bisita	

Gidatua Olaso Dorrea)	
14. Konbinatua, Tarifa arrunta	5,20 €
15. Konbinatua, Tarifa murriztua	2,60 €
16. Konbinatua, Tarifa taldeak	3,10 €
17. Konbinatua. Doako bisita gidatua	0€
HEZKUNTZA ESKAINTZA	
18. Eskolendako bisita gidatuak (ikasleko)	1,55 €
19. Eskolendako jarduera didaktikoak, laborategiko jarduera gabe	
20 ikasle arteko taldea	62,40 €
20 ikasletik gorako taldea	104 €
20. Eskolendako jarduera didaktikoak, laborategiko jarduerarekin	
20 ikasle arteko taldea	93,60 €
20 ikasletik gorako taldea	124,80 €
DENDA KO MATERIALA	
“Laboratorium” koadernoak	5,20 €
“Laboratorium” postala	0,5 €
“Laboratorium” boligrafoa	1,05 €
“Laboratorium” katilua	5,20 €
“Laboratorium” giltzatak	3,10 €
“Laboratorium” PENDRIVE	15,60 €
“Laboratorium” poltsa grisa	10,40 €
“Laboratorium” poltsa gorria	5,20 €
“Laboratorium” motxila	10,40 €
“Laboratorium” txapela helduentzako	10,40 €
“Laboratorium” txapela umeentzako	9,35 €
“Laboratorium” kamiseta helduentzako	15,60 €
“Laboratorium” kamiseta umeentzako	10,40 €
“Laboratorium” Txalekoa	63,45 €
“Laboratorium” sudadera	38,50 €
Carles Pucheren litografiak (Bakoitza)	62,40 €
“Laboratorium” Koloreztatzeko koadernoak (2 aleak)	2,10 €
Bergarako kolore erraldoiak	6,25 €
Margotu eta koloreztatu zure erraldoiak	1,05 €
CD: Bergarako Ereserkia eta Elkarteen Martxak II	9,35 €

Liburua: Arte y Piedad (ale bakoitza)	5,20 €
Liburua: Urbanismo y arquitectura civil en Bergara (s.XIII - XVIII)	5,20 €
Liburua: Berogailu baten historia.	5,20 €
Liburua: Historia de las cátedras de química y mineralogía siglo XVIII	5,20 €
Liburua: Bikaina, aberatsa, aurrera begira	5,20 €
Liburua: Marcial Agirre eskultorea.	5,20 €
Liburua: Simon Arrieta 1915 - 1969	15,60 €
Liburua: Lan eta lan, emakumea Bergaran.	10,40 €
Liburua: Eustakio Aldekoa. Pintore eta argazkilaria.	5,20 €
Liburua: Justo Garate. Un crítico en las quimbambas.	6,25 €
Liburua: Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua.	5,20 €
Liburua: Bergara. Alde historikoa, eliza eta etxe-bikainak. Kale izendegia.	5,20 €
Liburua: Bergara y bergareses en el "boletín" de la RSBA /EAE	5,20 €
Liburua: Linua Ehuna Artilea	5,20 €
Liburua: Txondorak Karobiak Elurzuloak	5,20 €
Liburua: Zura: Arotzak eta etxegileak	5,20 €
Liburua: Burdina: Errementariak eta perratzaileak	5,20 €
Liburua: Deba haraneko historiaurrea	5,20 €
Liburua: Bergara: Hiria erdi aroan	5,20 €
Liburua: Historia social de Bergara en su época pre-industrial	5,20 €
Liburua: Las manifestaciones del hecho ilustrado en Bergara	5,20 €
Liburua: Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran	5,20 €
Liburua: Bergarako biztanlengoaren historia	5,20 €
Liburua: Artea Bergaran. Erdi eta moderno aroak	5,20 €
Liburua: Estudio del medio físico del término municipal de Bergara	5,20 €
Liburua: Casa, familia y trabajo en la historia de Bergara	5,20 €
Liburua: 30 emakume ahaztezin	10,40 €
Liburua: Una biblioteca bergaresa de la época ilustrada: la de don Rafael de Garitano-Aldaeta	10,40 €
Liburua: Lorenzo Ascasibar. Eskultore baten testigantza.	15,60 €
Liburua: Wolframa.Diktadoreen, arteko kontrabandoa.	15,60 €

E epigrafea: SEMINARIXOA

Aretoa erabiltzea	128,90 € / orduko
Elementu teknikoarekin	Langile teknikoa 37,60 €/ordu *
Elementu teknikorik gabe	Langilea 26,90 €/ordu *
Aretoa garbitzea	145,05 €
Material alokairua	
Maskor akustikoa	838 € (muntaketa/desmuntaketa lanak) Langileen ordu/prezio kontuan hartuta 5 pertsona/4 ordu 4 pertsona/5 ordu

OHARRA:

(*) *Prezio hauek orduko dira eta asistentzia teknikoko ordutegiaren arabera kalkulatu dira.*

HOBARIAK

- % 0
- a) Ekitaldi-antolatzailea irabazteko asmoa duen enpresa/ entitate/ erakunde/alderdi politiko/sindikatu bada.
 - b) Sarrera kobratzen badu, irabazi asmorik gabeko taldeak.
 - c) Hobaririk jasotzeko aurreko baldintzak betetzen ez dituen beste edozein talde/enpresa/elkarte/erakunde.
- % 100
- a) Ekitaldi-sustatzailea Bergarako taldea bada eta zuzenean zerikusia badu honelako jarduerekin: musika, antzerkia, dantza, hau da , arte eszenikoekin lotuta (sarrera dohain izanda).
 - b) Ekitaldia Bergarako ikastetxe publikoren batek antolatzen badu (sarrera dohain).
 - c) Ekitaldia Bergarako beste ikastetxeetako batek antolatzen badu, urtean behin. (*barneko ekitaldia eta dohain*)
 - d) Ekitaldia Bergarako beste ikastetxeetako batek antolatzen badu, Bergarako herritarrentzat, dohain (*barneko ekitaldia*).
 - e) Ekitaldiaren sustatzaileak arte eszenikoko edozein diziplina lantzen badute eta takilaren ordezkaintzen badute bere ikuskizuna, beti ere kultur zerbitzuak ikuskizun egokia dela baderitzo.
 - f) Ekitaldia hirugarren adinekoentzat edo ezgaitasun bat dutenentzat edo haien senideentzat bideratuta badago.
 - g) Bergaratar baten aldeko ekitaldi bat, adibidez, FUNDAMEn eskutik egin zen jaialdia.
- 50%
- a) Bergarako beste edozein elkarte.

F epigrafea: Udal Materiala lagatzea

Material zerrenda:

Platerak garbitzea: 0,122 euro/bakoitza

Edalontziak garbitzea: 0,078 euro/bakoitza

Bueltatzen ez diren plater edo edalontzi bakoitzeko: 0,559 euro

Bergarako irabazi asmorik bareko elkarteek %100eko hobaria izango dute.

G epigrafea: CoWork gunea erabiltzea

CoWork gunearen erabileragatik 22,90 €/hileroko ordaindu beharko da.

Kontratuaren indarraldia bukatu baino lehen espazioa erabiltzeari utzi nahi dioten erabiltzaileek eskaera idatziz egin beharko dute, eskaera eredu normalizatuaren arabera eta plaza udalaren esku utziko duten eguna zehaztuz. Kontratuaren mugaeguna baino lehen CoWork gunea uzteak ez du berekin inolako zigorrik ekarriko, baina utziko den hilabeteko prezio publiko osoa ordaindu beharko da.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA